



BALIO PROPOSAMENA

ZER BEHAR EDO ARAZO KONPONTZEN DUGU?

Gure sistemak ebakuazioetan sortzen diren blokeatze, atzerapen eta arriskuak saihesten ditu. Hainbat arazo nagusi daude, hala nola, larrialdietan batzuetan asko kostatzen da atea irekitzea, ataskatzen delako edo barruan dagoen pertsona ezin duelako ireki. Arrisku egoera batean, gure sistemak atea automatikoki eta oso azkar irekitzen ditu, baita argindarra mozten bada ere, 72 orduko bateriari esker funtzionatzen jarraitzen du. Gainera, botoia sakatzean edo sentsoreek arriskua detektatzean, sistemak 112ra abisu automatikoa bidaltzen du eta familiarrei.

Ate ez irekitzea denbora galtzea eta arrisku hilgarriak sortu ditzake. Bestalde, orain daude sistema gehienak manualak eta motelak dira eta korrante-etenak gertatzean, ate-automatiko batzuk ez dira irekitzen.

Beraz, esan genezake gure soluzioak bizitza-arrisku zuzena murrizten du, ebakuazioaren denbora asko minimizatzen baitu.

ZER BEREIZTEN GAITU ETA, BERAZ, ZERGATIK EGONGO DA BEZEROA GURI ORDAINTZEKO PREST?

Gaur egun merkatuan ez dago produktu edo sistemarik detekzioa, kontrola, abisua eta irekiera eskaintzen dutela. Ezta energia independentea dutenak eta ate guztietara moldatzen den sistema unibertsalik. Gure prototipoa guztiz berritzailea da eta ebakuazio osoa eta azkarra ahalbidetzen du.

Gainera, gure sistema segundo batean baino gutxiagoan erreakzionatzen du eta esan bezala, sistema autonomoa da, 72 orduko bateriarekin. Horrez gain, monitorizazio bat dago APP-aren bidez eta akatsak egoteko probabilitatea ia 0 da.

Bestalde, arreta guztiz pertsonalizatua eskaintzen dugu, bezero bakoitzaren eraikina aztertuz (ate mota, kokapena, arriskuak, erabilera...) eta instalazioa eta software-konfigurazioa bezero bakoitzari guztiz egokitua da.

Segurtasunari erreparatuz, bost minuturo kodigo hori berritzen da eta beraz, oso zaila izango litzateke pertsona bat sartzea, ez dena familiarra edo larrialdi zerbitzuetakoa.

Instalazioa eta mantentze lanei dagokionez, ez da pertsona baten esku-hartzerik behar eta ez du mantentze lan konplexurik eskatzen. Gainera, guztiz erabilerraza da ez delako prestakuntza berezirik behar eta erabiltzen duen panela guztiz intuitiboa eta bisuala delako.



Diseinuari erreparatuz, produktu berdintsuak askotan ez dira batere estetikoak edo ate guztia aldatu behar da. Gure kasuan ez da horrela, guztiz diskretua, estetikoa eta integragarriak direlako, eraikinaren diseinuarekin bat egiteko.

Gure sistemaren puntu nabarmenena da prezioa nahiko baxua dela mota honetako beste sistemekin alderatuta. Gure prezioa merkeagoa da ate oso berriak instalatu beharrean, sistemak jada dauden ateak aprobetxatzen dituelako.

Laburbilduz, bereizten gaituena eta egingo duena bezeroak ordaindu nahi izatea izango da segurtasuna azkar funtzionatzen duelako, oso fidagarria delako eta edozein ate motatan instala daitekeelako, eraikinean aldaketa handirik egin gabe. APP batekin kontrolatu daiteke eta aktibazio guztiak erregistratzen ditu. Bezeroak ordaintzeko prest egoten dira segurtasun handiagoa ematen duelako, ebakuazioa errazten duelako eta arrisku egoeretan jendea babesten laguntzen duelako. Azken batean, gure sistemak benetako arazo bati irtenbide eraginkor eta praktikoa ematen dio.